

Nik, Kontxi Urdampilleta Santamariak, Astigarragako Udaleko Idazkaria naizenez, honako hau

ZIURTATZEN DUT

Alkateak eskuordetuta, 2025eko maiatzaren 27an egindako ohiko tokiko gobernu batzordean, aho batez, AJAko 206 artikulua salbuespenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

Kultura eta jai arloko dirulaguntza izendunak: Txirriskla taldea eta Danak Bat elkarteak.

Lehenak. Txirriskla txistularien elkarteari 13.200 €ko dirulaguntza izenduna onartzea.

Bigarrenak. Danak Bat elkarteari 32.000€, dirulaguntza izenduna onartzea abuztuaren 22tik 25era bitarteko Ergobiako auzoan jaiak antolatzeke. Onartutako zenbatekoa jarduera hauetarako izango da: 6.000€ haurren ikuskizunetarako, 6.000€ musika kontzertuetarako, 12.000€ herri kiroleetarako, 3.000€. Sagardo dastatze eta piroteknietarako eta 5.000€ azpiegitura eta aseguru gastuetarako, dena den, dirulaguntzaren onuradunak azpimultzo bakoitzerako finkatutako kopuruan aldaketak egin ahal izango ditu (batean gutxiago erabili eta beste batean gehiago) jaien egitarauan izandako gorabeheren ondorioz. Aldaketa horiek zuriketan xehetasunez azaldu eta egiaztatu beharko ditu.

Hirugarrenak. Aipatu dirulaguntzak bideratzeko, ordainketa-era eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena onartzea.

Eta horrela ager dadin eta behar den lekuan ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatzen dut.

Astigarragan, 2025eko maiatzaren 27an

 Xabier Urdangarin Lasa Alkatea	 Astigarragako Udala IDAZKARITZA SAILA	 Kontxi Urdampilleta Santamaria Ordezko idazkaria
---	--	---